

Bilbo, 2011ko Martxoaren 22a

Egunon jaun-andre guztioi:

Egunon Andres Urrutia euskaltzainburu jaunari, egunon BBKko ordezkariari, egunon sariturik izan zareten neska-mutiloi, eta, azkenik, egunon hona etorri zareten guztioi.

Hitzak elkarri josirik, bata bestearen ondoren jarririk, testuak osatzen ditugu. Testu horiek indarra eta poesia badute, testu horiek argitasunean indarra eta poesia badute, testu literarioak dira. Testuak indarra behar du, testuak poesia behar du, eta testuak argitasuna behar du.

Julio Llamazaresek dioenez, idazlea argitasunaren bila eta poesiaren bila ari da. Iluntasunak ez du, gehienetan, ez poesiarik ez indarrik. Iluntasunak nahastu eta itsutu egiten gaitu.

Bisonteak ehiztariengandik iheska doazenean, Ameriketako lautadetan ibaia zeharkatu beharra dutenean, ibaiko urak nahastu egiten omen dituzte. Ehiztariak edo indioak ibaiko ur nahasien aurrean izutu egiten omen ziren. Ur ilunak geldierazi egiten omen zituen ehiztariak. Ehiztariak ez ziren ausartzen ur ilunak zeharkatzera; ez ziren ausartzen ibai nahasi eta ilunak zeharkatzera. Zenbait idazlek ere beren testuak ilundu eta nahastu egiten dituzte, itxura sakonagoa eman nahirik, ihesean doazen Ameriketako lautadetako bisonteek bezala.

Guk aukeratu behar izan ditugun testu sarituak oso onak direla iduritzen zaizkigu. Testuek beren argitasunean indarra eta poesia dutela iruditzen zaigu.

Has nadin, beraz, banan banan izentatzen:

NARRAZIOA

HIRUGARREN SARIA: ANGEL

Ipuin indartsua da *Angel*. Bizitza oso bateko istorioa. Gure ipuineko protagonista Angel da. Bizitzaren gogorra eta ametsen ezina adierazaten du ipuin honek. Indar handiko ipuina da konparazio eta metaforaz hornitua. Gure protagonistak amets handiak izan arren fabrika batean lan egin beharko du, egunero lan aspergarria eta betibatekoa eginez. Charles Chaplinen *Tiempos modernos* filmeko langile bat ematen du Angel protagonistak. Ipuinak klasiko amerikar baten eitea ere badu. James Thurber-en “La vida secreta de Walter Mitty”. Hona pasarte bat:

Lehenengo marklinari errotorea jarri engranajea estutu eta kaxara. Bigarren marklinari errotorea jarri engranajea estutu pinoia begiratu engranajea lotu eta kaxara. Lehen eguzki printzak hasi ziren sartzen lantegiko teilatu ondoko leihoetatik. Hirugarren marklinari errotorea jarri engranajea estutu eta kaxara. Udako opor egunak zetozkion gogora, eguzkiak betazaletan joaz esnatzen zenetakoa. Buelta lehenengo marklinera errotorearen diametroa neurtu automatikoan sartu eta prest robotarentzat. Eta hauts artetik hondartza bateko egunsenetian imajinatu zuen bere burua. Hurrengo marklina hartu errotorearen diametroa neurtu automatikoan sartu eta robotera.

BIGARREN SARIA: BIZITZA ZERTZELADATAN

“Bizitza zertzeladetan” ipuineko ardatz nagusia amodioa da. Amodioa era batekoa eta bestekoa, baina batez ere Kattalin eta Eiderren artekoa. Kattalin Etxenike eta Eiderren artekoa. Amodioa eta baita adiskidetasuna ere.

Kattalin Etxenikek margolaria izan nahi du, baina ez nolana hiko margolaria. Bere amonari ere promes egiten dio margolaria izango dela. Kattalinek *Itsasoa eta olatuak*

eta zerua eta lainoak eta mendiak margotuko ditu, baina ez beste margotzaileek bezala, beste modu batean baizik. Hona Kattalinen hitzak:

Nik kresalaren usaina margotuko dut, olatuen eztabaida itsasertzeko haitzekin, eguzkiaren beroa, haizearen dantza pagoen orbel horituekin, lainoen goxotasuna, loreen arnasa...

Kattalinek Eiderrekin amodio istorio bat izango du, baina halabeharrak elkarrengandik banatuko ditu. Denbora pasatzen denean, Eiderrek badu senargaia, Liher deritzan mutila.

Eiderrek egun batean, Kursaal parean kartel erraldoi bat ikusiko du “Bizitza pintzeladetan” izenburua duena. Pintura erakusketa bat da Kattalin Etxenikereren berrogeita hamabost kuadroekin. Barruak aginduta erakusketa horretara joan beharko du.

Ipuin honetako argudioa indartsua da. Amodioaren ertz bizi eta mingarriak agertzen dira. Larrosaren gorria eta freskotasuna, eta, era berean, larrosaren arantzen zorrotza.

LEHEN SARIA: HANGO ODEI BAT HEMENGO ZERUAN

Ipuin honetako pertsonaia nagusia Euskal Herritik urruti dago, Kanadan. Eta Kanadan, hiri handi batean, Montrealen, hain zuzen. Montrealeko zehaztasunak ematen ditu protagonista izengabeak. Montrealen egin duen lagunaren berri ere ematen digu: Ryan. Ipuin honek, alde batera, euskal ipuin zoragarri bat ekarri digu burura: Sarrionaindiaren “Maddi indazu kamamila”. Baina joan gaitezen berriro ipuineko argudiora eta esan dezagun

Montrealen Euskal Etxearen bila abiatzen direla protagonista eta Ryan bere laguna; eta aurkitu ere aurkitzen dute eraikina. Baina barrua motel dago, bizitzarik gabe, orduan etzan egiten dira eta modu zoragarri honetan amaitzen da ipuina:

Eguerdiko ordu biak dira eta zerura begira gaude. Hara, hodei batek bihotz forma daukala seinalatu du zure hatz batek. Bihotzarena ez, txotxolo, horrek Euskal Herriaren eitea du. Erdi triste itaundu didazu orduan Euskal Herriaren eta zure artean zein haututako dudan, lainoari zazpi probintzien irudia atxiki diodan orduko hegazkinean alde egiten irudikatu izan baninduzu bezala. Begietara begiratu dizut. *Dear*, zurekin etzanda nago Euskal Herria dirudien laino bati begira, gustura. Euskal lurretan etzanda banengo, ez uste izan zure tankerako laino batekin konformatuko nintzatekeenik. Burua jiratu duzu irribarrez eta orain pare bat aste ikasitako *maite zaitut* esan didazunean euskaraz, eguzkia irte da lainoaren atzetik.

OLERKIA

HIRUGARREN SARIA: EDAN ETA EDAN

Poesia edo olerkian egitura paraleloak indar handia du. Poesia honetan hamaika basokadek eragiten duten mozkorra adierazten da. Basokadak banan banan aipatzen dira. Lehenaren ondoren bigarrena, bigarrenaren ondoren hirugarrena, laugarrenaren berririk, ordea, ez da ematen, baina bosgarrenean aipatzen da, bide batez, laugarrena. Hamargarrenaren basokadaren ondoren hamaikagarrena etorri beharrean azkena dator. Hona azken ahapaldia:

Azken basoa,
Egoera jada kaotikoa:
Erraiak ia barnetik kanpora,
Hurrengoan edanen omen duzu ura,
Baina iragan azken bestan
Ideia bera gogartzen zenuen gogoan!

BIGARREN SARIA: MAITEMINDUAREN KOPLAK

Olerkietako gai nagusietako bat maitasuna izan ohi da. Olerki honetako gaia ere maitasuna edo maitemina da. Izenburua ere halaxe du “Maiteminduaren koplak”. Hortik gora ez da erraza laburbiltzea. Hasiera irakurriko dizuet, beraz:

Etor zaitez eta esaidazu,
joan zaitez eta utzidazu,
ez dago erdibidekorik.
Denborak guztia sendatzen omen du,
ba ez,
mediku eskasa da.
Gure musuak ez ditu inoiz haize bortitz batek eramango,
giltzapeturik dauzkat, zeuk noiz askatuko zain,
maitasuna da benetako medikua eta ez denbora,
baina zeu zara giltza, gakoa.

LEHENENGO SARIA: DORTOKEN SEKRETUA

Irudi indartsuz hornitua dago poema. Irudi indartsuak ugari bat bestearen ondoren. Dortoken sekretua ere maitasun olerki bat da. Dortokak geldoak omen dira, baina dortoken sekretuak, ordea, azkarrak. Hona poemaren amaiera:

Hodeiek haizearekin bat ihes egin dezakete,
aingeru hegadunekin,
gorroto eta malkoekin,
nahiz txuri edo beltz izan,
bizkor-bizkor.
Baina azkarrenak,
dortoken sekretuak dira.

Nirea hau da:

“Aurkituko zaitut,
hegoak irekiz eta putz eginez,
zure ezpain gozoetan hegan egin arte”.